

Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

07

"Orotik bueltan"



aisialdeuska



kultura

Ioramendi



Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen mapa 10-11. orrialdean aurkituko duzu, bidean errezago aurki dezazun.



01

Km82



Ibilbidearen hasiera



Atxabaltako plazan hasiko dugu gure martxa, 82. km puntuan, Loramendik antolatutako ibilbide denetarako gure elkarpuntua den horretan.

02

Lausitta



Elixondotik **Lausittarantz** pasatuko dugu zubia, eta **Galartzako** lurretan sartuko gara. **Lauaxeta** esan gura ei du **Lausittak**. Bertatik, lehen *Tomasenak*, *Txomiñenak* eta *Gerrenak* ziren **Pagotxueta** sailak gurutzatu eta **Oxinbaltazarantz** joango gara. Presa ikusiaz, **Oroko** lurretan sartuko gara; lehen errota zegoen bertan eta presa hartarakoxe zen. Aurreraxeago, tubo-fabrikara ura eroateko erabiltzen zen tuberiaren zutabeak daude.

Aurrera jarraitu **Arbizelairantz** eta erreka berriz gurutzatuta, **Santutxu**, **Zubikua baserria**, **Kruzerue**, **Ospittala** eta **Errotetxe** inguruak ikusiko ditugu. **Errotetxe**, berez, **Erretoretxe** esan beharko genuke, inork pentsa ez dezan errota zela. Hortik gora, **Bedarretako San Migel** hilerriak ere mereziko du azalpenen bat.



Oro auzunera doan **estrada zaharretik** gora jarraituta, eta Elezgaraira heldu baino lehenago, estrada alde batera utzita, **bolalekupetik** eta **Eleizgarai** gainetik, **Zumaduirantz** sartuko gara. Bertatik **Murrukixo** erreka pasatzen da; iturburua goraxeago, **Murrukixoko** iturrian dago. **Zumaduiko** asketan arropak garbitzen ziren, auzuneko **Beheko Itturrian** ur gutxi egoten zen hilabeteetan.

Bertan **harrobia** dago, eta arraroa bada ere, **Oroko** karobi denak harrobitik gora daude; a ze lana harriak gorantz eroaten! Baliteke harrobia **San Migel** eta Santutxu egiteko erabili izana, eta horrela, zentzu handiagoa izango luke harrobiaren kokapenak.




Aurrera jarraituz, eta **Olioizabal Gaiñari** buelta emanaz, **Igartuatik** pasatuta, **Irubietara** agertuko gara. Bertan **Orotik**, **Bedoñatik** eta **Olioizabaletik** datozen bideak elkartzen dira. Beste bide batzuk ere badaude bertan, eta aipatu bako batetik sartuta, **Antxuxieta** aldera joango gara. **Bekobasuek** behe aldean ditugula, **Muxibar erreka**ren iturburura helduko gara, hau da, **Andauitturrira**. Bertan, **Bedoñatik** **San Migel**eko hilerria bidean, deskantzua egiten zuten anderoek.



Bedoña aldera jarraituko dugu, **Orotik** datorren bidea hartuta, eta ia 180 graduko bira eginda **Bedoña**ko **Urin** baserri ondotik, depositu aldera hartuaz, **Koruako** tontorrerantz joango gara. Hori da **Oroko** punturik altuena, bertze geodesikoa ere bertan dago eta **Oro** auzoa ikusteko paraje edarra da. Azpian **Otabixkar** daukagula, **Larriño** alderantz joanda, **Korostaira** helduko gara. Bertan baserria zegoen lehenago; gaur egun, uso postu ugari daude bertan.

Beherako bidea hartuko dugu senda estu batetik; paraje istingatsuan sartuko gara, paraje umela benetan. **Markiozabal** da paraje honen izena. Bertan **Koruebarreneko iturria** dago, eta **Oroko** depositurako iturburuetako bat da berau. **Oroko** auzunera gerturatzen gabiltza, eta **Arregiekue** izango da ikusiko dugun lehenengo baserria. Auzora iritsiko gara laster baten eta bertako ermita, sagardo eta bestelako kontuak kontatuko ditugu, bokadutxo bat eginaz eta sagardo apur bat hartuaz.



03

Sagardoa



Gutxi edo asko, sasoi baten, **Aretxabaletan** ere, baserri gehienetan egiten zen sagardoa. Gaur egun, lan horrekin jarraitzen dutenak banaka batzuk dira. Zalantza barik, **Oro** izango da sagardo gehien egiten den **Aretxabaletako** auzogunea.

• Oroko askak



Irei, Iturralde eta **Goikoetxe**koak bi urtean behin elkartzen dira sagardo-lanetarako; izan ere, sagarrondoak uzta ugaria bi urtez behin emateko berezko joera dauka, eta joera horri lotuta sagardoa ere hala egiten da **Oron**. **Ireiko** sagastian besteak beste *errege-sagarrak* dira nagusi, nahiz *beltza*, nahiz *txuria*, nahiz arraiduna izan. **Iturralden** ezagunak dira *urtebetie*, *urdin sagarra* eta *gaza zurixe*. **Goikoetxen** *Urzabala*, beti oso aberatsa, *urdin sagarrak* eta *errege-sagar zuria* eta *beltzak* ere badaude, baita *errege-sagar txikia* ere; gazak, berriz, *zuria* eta *arraiduna*. *Bost kantoie* edo, bertakoek deitzen dioten legera, *mokotxue* ere bertan ikusi genezake.

Sagarrak elkarrekin bildu, matxakan jo eta dolarean elkarrekin estutu eta gero, sagardo bihurtuko den sagar ur berri hori bakoitzak dituen kupelen arabera banatzen dute, guztira 1500 bat litro.

Sagardoaren kontua lehenagotik dator **Oron**. Aztarna nabarmenena **Goikoetxen** daukagu, etxe hori **Bengoetxe**koek dolaretarako jaso zuten baserri-etxea da-eta. Oraindik ere, *Ezkioko Igartubeitin* antzera, etxearen zutabeetan ezagun dira dolarea estutzeko erabiltzen ziren egurtzarren lekuak.

Gerora, XX. mende hasieran, **Eleizgarain** ere egon zen dolare txiki bat. Eta urte batzuetan **Errotabarritik** ere ekartzen zen dolarea, bere errueda, haga eta guzti, batetik bestera eramateko modukoa zen-eta.


Gaur egun erabiltzen dutenak, berriz, **Irein** dagoen dolareak, badauka bere kontakizuna: guk dakigula, **Apotzaga Etxebarrin** dauka lehenengo kokalekua; **Oruetan**ak sagardotegi modura funtzionatu zuen sasoi baten, eta bertako dolarea zen, nahiz eta gerora utzi egin zuten, eta, nola ez, dolarea alperrik zegoen han.



• Matxakadone

Garai hori izango zen Marianistak **Torrebasora** etorri zirena eta beraiek eraman zuten dolare hori, bertan sagardoa egin ahal izateko eta nolabait ikasle gazteen egarria asetzeko. Baina han ere, urte batzuen ostean, sagardo lanak utzi egin zituzten, eta berriro ere geldirik geratu zen dolarea.

Hori ikusita edo, **Oron**, **Sanjuango Joxe Agirianok** gainontzeko auzokoak ohartarazi zituen dolare baten beharraz eta animatu, aukera aprobetxatu beharra zegoela esanez, eta baita lortu ere. **Ireiko Pedrok** utzi zuen dolare hori jartzeko tokia; 1950. urtea zen.



• Dolare

Hasiera baten sei bazkide ziren: **Sanjuangoa**, **Estebangoa**, **Urzelaina**, **Goikoetxe**, **Iturralde** eta **Ireikoa**. Emaitzak ere eman zituen; sagardo asko egin da **Oron**, eta bertakoak ez ezik, **Arientza**, **Azatza**, **Eskoriatza** eta beste hainbat tokitatik ere etorri izan ziren bertara sagarrak estutzera. 4.000 litrotik gorako urteak ere izan ziren.

Sagardo-lan asko egin da **Oron**, eta horrela jarraitzen dute gutxienez hiru etxetakoek, baina joanda badaude ere, auzo-lantegi honetan ezin izango ditugu ahaztu **Iturraldeko Joxe Martin** eta **Jeronimo** bera ere; ezinbesteko gizonak **Oro** eta sagardoaren kontuetan.

04

Oroko etxeak



1834. urteko zerrenda batean, baserri etxe hauek ageri dira: **Beheko Oron**, **Arbizelai**, (Arbinzelai) bi etxebizitzarekin, **Zubikoa**, **Errotatxe** (Erretoretxe) eta **Eleizgarai**, bi etxebizitzarekin. Eraikin modura, **Bedarretako San Migel** dagoeneko 1808tik kanposantua zen, eta ordutik baita **Santutxu**, Santikurtzeko kapilla, hiletetan geldigune bezala geratu zen. **Ospitala** gerora eraiki zen. **Goiko Oron**, berriz, **Iregikoa**, bi bizitzarekin, **Korostai**, **Arreikoa** (Arriegi), **Perukoa**, **Iturralde**, **Sanjuangoa**, **Goikoetxe**, **Axerikoa**, **Manrikekoa** (Madreikoa), **Estebangoa** eta **Bengoetxe**. Geroagokoak dira **Larrinbe**, **Aizpuru** eta **Mendi**





05

San Juan eta San Martin



Oroko auzo-gunea tontor baten dago kokatuta, eta tontor horri orain ere **Sanmartingo tontorra** deitzen zaio. Bere azpialdean **Sanjuangoa** baserria dago. Tontor punta horretan jakina da San Juani eskainitako ermita bat zegoela; ia eroritako horma zaharrekin ondo gogoratzen dira bertakoak, baita hark zuen puntu erdiko arkudun ate buruarekin ere. Oraindik bertan daude kanpailekua osatzen zuten harlanduak. Bertako San Juanen irudia gaur egun Sailluenten dago.





Perukue,

Oreixa

Arriegi

Axkarralde

Tantaiduixe

SanMartingo tontorra

Apietegi

Altzaga

Iturriotz

Olaun

Mendi

Kalesolue

Aizpurutxo

Aremendi

Olarte

Arregisolo

Amina

Beheko-solo

txe

Ospitala

Arbizelaiko-txarie

Ibilbidearen mapa

Zenbakeriez agertzen diren tokien deskribapena barruan aurkituko duzu.



Ibilbidearen deskribapena


- Luzera: 5,89 km
- Zailtasun maila: Ertaina
- Altuera minimoa: 282 m
- Altuera maximoa: 504 m
- Denbora: ordu bat eta erdi
- Koordinatuak: 585



- ibilbidea interneten:

<http://eu.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=9789475>





Igartua

Irubideta

Andaiturn

 Bedoña auzoa

Ur depositue

Zamadui eta kanterie

Bedarretakoa San Migel

Eleizgarai

Korua

Estrada zaharra

Korostai

Aregikue

 Oro auzoa

emendi



Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

ados
komunikazioa

Eskerrak: **Jesus Osinaga**



Aretxabaletako
Udala



Ioramendi

Durana 11 (Udaletxe Zaharra)
20550 · Aretxabaleta · Gipuzkoa
Tel.: 943 77 09 70 / 685 75 67 29
loramendielkartea@gmail.com